

IRAKASLEENTZAKO GIDA DIDAKTIKOA

Zaintzen

bidez

hazi





Argitaratu: InteRed.

Alicia Blasek egina eta Guillermo Aguado, Nora Silva, Encina Villanueva eta Ainitze Zabalak elkarlanarekin.

Irudiak: Leticia Navarro.

*Aske zara lan hau kopiatzeko, banatzeko eta publikoki hedatzeko, betiere kontuan hartuta lanaren kredituak aitortu behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza-xedetarako erabili. Ezin duzu lan hau aldatu edo eraldatu, ez eta lan eratorriak sortu ere bertatik abiatuta.*

*Argitalpen honek Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentziaren (AECID) eta Eusko Jaurlaritzako Garapenerako Lankidetzarako Euskal Agentziafinantza-laguntza jaso du. Solik InteRed Fundazioa da argitalpen honetako edukien erantzule, eta edukian jasotako iritzi guztiek ez dute zertan Agentziekin bat etori.*

# Aurkibidea

Aurkezpena .....	4
Jolasaren hartzaileak .....	4
Hezkuntza-helburua .....	5
Jolasaren garapena .....	5
Hausnarketarako gako teorikoak .....	12
Lana: enplegua eta zaintza lanak .....	12
Iceberg-aren sistema .....	13
Emakumeen lanak eta gizonen lanak: genero rolak .....	14
Zaintzen krisia .....	14
Krisialditik ateratzeko: bizitza erdigunean jarri .....	15



# Zaintzen bidez hazi


## **Aurkezpena.**

Aurkezten dugun jolasa, 45 fitxak hiruak ezarri bat osatzen dute, gaur eguneko garapen eredu eta zaintzen krisiaren metafora bihurtuz.

*Jenga, Leslie Scott.ek sortutako jolasa da, Swahili izenekoa "eraiki". Egurrezko 54 blokeekin jokatzeko da, bere luzera, zabalera eta hiruak delarik. Blokeak pilatu egiten dira dorre bat osatzeko. Solairubakoitzak hiru bloke ditu, eta gaineko solairua perpendikularrean jartzen da. Beraz guztira 18 pisu geratzen dira.*

*Dorrea eraikita dagoen unean jolasa hasten da: edozein solairuko fitxa hartu eta dorrearen goiko aldean jarri behar da, beti ere ordena jarraituz (perpendikularrean). Azken solairuko fitxak ezingo dira hartu, eta bi hatzamar soilik egon daitezke dorrearekin kontaktuan fitxa hartzen dugun bitartean.*

*Jolasa bukatutzat ematen da, hau jausten denean. Puntu honetatik aurrera hainbat jarraipen aukera daude. Bakoitzak bere aldaera sortu dezake jolasa oraindik alaiagoa bihurtzeko.*



\* Aurkezten dugun jolasak 45 fitxa ditu baina dinamika berdina jarraitzen du.

Jolasten, jakingo dugu ea posible den hazkuntza mugagabe batean jarraitzea, ea hau den gizartearen eta pertsona guztien ongizatea bermatzen duen bide bakarra edo al-diz, etengabeko hazkuntza eta kontsumo eredu hau krisian dagoen.

## **Betiko hazi gaitzke?**

Ausartu eta saiatu...

## **Jolasaren hartzailak.**

Edozeinek jolas dezake Jenga.ra. Gure proposamenari jarraituz era kolektibo batean jolastea proposatzen dizugu. Gure pentsaera eta intuizioak beste pertsonekin partekatzea interesgarriago eta alaiagoa izan daitezkelako!



Hala eta guztiz ere, Jenga.ren edizio hau 2. mailako DBHko eta Batxillergoko ikasleei zuzenduta dago. Hala nola mobilizazio, sentsibilizazio eta bolondres talde gazteentzat.

### ● Hezkuntza-helburua.

Jolas honen bitartez, parte hartzaile guztiek honakoa lortzea gura dugu:

- Zaintzen lanak ezagutu eta bizitzaren sostenguan duten garrantziaz jabetu.
- “Hazkuntzaren mitoa” kolokan jarri eta garapen eredu dominantearen ondorioak identifikatu, bereziki Zaintzen Krisia.

Halaber, espero dugu parte hartzaileek hurrengo ideiak beraien egunerokotasunean kontutan hartzea:

- Ezagutu eta identifikatu zeintzuk diren LANAREN BANAKETA SEXUAL-alaren oinarrian dauden esteorotipo eta genero rolak.
- Zaintzen ikustezintasunaren azpian dagoen androzentrismoa hantzeraman.
- Naturaren inportantzia bermatu bizitzaren oinarri bezela, eta ingurumen krisia ikustarazi.
- Bizitzaren sostenguari onura edo kalte egiten dioten norbanakoaren eta kolekti-boaren erabakiak identifikatu.
- Zaintza lanen aurrean korrespontsabilitate jarrera sustatu eta bestelako gizarte aktoreei erantzukizunak exijitzeko gaitasuna garatu.

### ● Jolasaren garapena.

#### 1. Antolaketa.

Saioaren hasieran hainbat kontzeptu erabiliko dira jolasaren testuingurua azaltzeko. Garrantzitsuenak: lana, lan produktiboak eta zaintzen lanak, merkatua, hazkuntza, enplegua, etb. Era berean Iceberg-aren ideia erabiliko dugu jarduera bakoitzak gizartean duen giza-balioa ezagutzeko. Eduki hauek prestatzeko klabe teorikoetan oinarrituko gera, hala nola hurrengo web orrian:

<http://redciudadaniaglobal.org/actua-con-cuidados/>

Gomendatzen dugu, parte-hartzaileen aurretiko ideia, hausnarketa eta esperientzietatik abiatzea, datuak eman eta galderak planteatuko ditugu eraikuntza kolektiboaren prozesua gidatzeko xedearekin. Fase honetan, zaintza lanei eta lan produktiboari buruzko ideia zaparrada bat egitea proposatzen dugu, bien arteko desberdintasunak ulertzen eta ikusarazten laguntzeko. Gure gizartean zaintzek duten garrantziaren inguruko datuak aurreratu daitezke ere puntu honetan.

Bigarren une batean, ondo legote jakinaraztea zeintzuk burutzen dituzten gehienetan lan mota hauek. Horretarako, sexu, genero, genero rola, lanaldi bikoitza, etb. kontzeptuak landuko dira. Oraingoan ere, estadistika batzuk partekatuko ditugu taldean eta hauen esperientzi eta pertzepzioekin bat egiten duten ikusi.

## 2. Jolasa.

Jolasa, dorrearen muntaiarekin hasten da, bertan azalduko dugu lanaldiaren %66a zaintzei dagokiela, hau da 29,7 fitxa, eta %34a lanaldi ekoizleari, hau da 15,3 fitxa.

Txandaka, bakoitzak txartel bana hartuko du eta ozen irakurriko du. Txartel bakoitzean zaintza lan bateri buruz mintzatzen da, geroz eta denbora gutxiago eskaintzen zaiona, egitez utzi dena edota merkatuaren bitartez hasetzen dena, hau da, zaintza lan hori burututokoko den eremu sozialetik at dagoen norbaiti ordainduta egingo dena. Ondoren, dorrearen bloke bat atera beharko da piramidearen oinarritik eta goiko aldean ezarri, era honetan sinbolizatuko dugu zaintza lanen garrantzia.


Jolasa era berean jarraitzen da, dorrea erori arte. Dorrea oso aguro erori ezker, berriz berrantola genezake eta jolasarekin jarraitu, txartelak bukatu arte. Beste aldetik, txartelak bukatuko balira dorrea erori baino lehen, taldeari eskatuko litzaioke merkatuaren onurarako eta zaintzetarako behar diren denboren, eremuen eta energien murrizketa eragin duten giza eraldaketa berriak identifikatzea.

## 3. Hausnarketa.

Jolastu ondoren, denbora bat eskainiko diogu jolasaren inguruko hausnarketari, gure egunerokotasunera estrapolatu eta gure garapen eredia eraldatzeko egin dezakeguna pentsatuko dugu, iraunkorragoa izan dadin.

Lehenik, garapen ereduaren eta ikusezinak diren zaintzen arteko harremana aztertuko dugu: Nola aztertu dezakegu garapen eredia dorrearen metaforatik abiatuta? Dorreak zer irudikatzen zuen? Jakitun al ginen bizitzaren mantengurako beharrezkoak ziren zaintza-lan kantidadeari buruz? Gure egunerokotasunean ikusten genituen edota ikusezinak ziren orain arte? Zergatik zaintzak dira ikusezin edota gutxietxiak? Puntu honetan landu ditzakegu, lana, lanbidea, merkaturia, zaintzak, ikusezintasuna, iceberg, etb. Kontzeptuak, baita androzentrismoari sarrera eman.

Eztabaidatzen jarraituko dugu hazkuntza helburutzat duen eredia eta zaintzen krisi egoera:



Zer gertatu da hazi nahian? Bai bizitzan eta baita dorrean ere fitxa berriak sartu ditzakegu, edo hasierakoak soilik daude? Zer gertatzen da oinarrian dauden fitxak erabiltzen baditugu hazten jarraitzeko? Nola bete ohi dira gure gizartean hustutzen joaten diren tarte edo zuloak? Beraz.. hazi gaitzke era jarraitu eta mugagabe batean? Zeintzuk dira pertsonen bizitzan dituzten ondorioak? Hakuntzak on egiten al die guztiei era berdinean? Oraingoan hurrengo kontzeptuak landuko ditugu: Interdependentzia vs dependentzia/independentzia; iraukortasuna eta zaintzen kate globalak.

Apur bat aurreratuz, jolasean bizitu duguna parte hartzaileen bizi- esperientziekin erlazionatzaten saiatuko gara. Honetarako, ez gara sartuko hainbeste esparru teorikoan, baizik eta emozioak eta itxurakeriak ikutuko ditugu: Nola sentitu gara jolasarekin? Gure egunerokotasunean antzera sentitzen al gara? Eta txartelen edukari buruz, norbanakoaren zein esperientziarekin erlazionatzen dugu? Bizi izan al dugu horrelako esperientziarik? Eta gure familiako kideren batek bizi izan al du, laguneren batek?

Bestalde, pertsonen gizartean posizio desberdina izan dezakegu gure sexuaren, jatorriaren, etatus ekonomikoaren eta abarren arabera... Zeintzuk daude piramidearen oinarrian eta zeintzuk goian? Nortzuk jasaten dute pisu gehien? Nortzuk mantentzen dute bizitza? Nortzuk daude hobe balioetsiak? Nortzuk dute bizi kalitate hobegoa? Egungo testuinguruan, zein ondorio ditu pertsonengan (osasunean, gizartearen partehartzean, gizarte garpenean, etb.) piramidearen oinarrian edo goikaldean egoteak? Banaketa zuzena al da? Atal honetan gogora ditzagun, sexu, genero, genero eginkizun, estereotipo, lanaren banaketa sexuala, etb. kontzeptuak, koerantzunkizun (emakumeen eta gizonen arteko erantzunkizun bateratua) eta zaintzen zorra barneratuz.

Bukatzeko, saiatuko gara pentsatzen zer egin dezakegun eredu eraldatzeko non bere iraukortasuna, ongizate kolektiboaren lorpena eta eskubide guztien gozamina bermatuko dituen: Zer egindezakegu? Nola hazi beharko genuke? Zertan hazi eta zertan txikiagotu? Zerri eman beharko genioke lehentasuna? Zein jarduerari eman beharko genioke denbora, energia eta toki gehiago gure egunerokotasunean? Gaur egun, Piramidearen oinarria berreskuratu, onera ekarri genezake? Azken batez, nola jarri bizitza erdigunean? Azken atal honetan ondorengo kontzeptuak barneratzen ditugu: ekofeminismoa, deshazkundera eta zaintzen etika.

### Iraupena.

Hiru aldiak ondo jorratzeko gutxieneko ordu 1 beharko da. Hala ere, oso ondo jorratu nahi badugu, hausnarketa eta antolaketa aldietan sakonduz, eta nahi den denbora guztia jarduera eskolako eduki kurrikularekin harremantzen bada.


### Gomendioak.

- Interesgarria izango litzateke bat edo bi begirale izendatzea, taldearen erreakzio, estrategiak, erantzunak eta abar gogoan hartzeko. Hausnarketa eta azterketa aldiak, informazio guzti hau oso baliagarria izango da egunerokotasunarekin erlazioak egiteko.

- Genero estereotipoak aztertzerako orduan gure identitatea zalantzan jartzen dugu; honek une askotan erresistentzia eta ezingonak ekar ditzake. Prozesuak zaindu behar ditugu, emozio eta sentimendu guztiak errespetatu eta pertsona bakoitzari barne prozesu hori egiteko behar duen denbora eman. Era berean asertzioz eta paternalismorik gabe hitz egin behar dugu, biktimizazioetan eta kulpabilizazioetan erori gabe, bai neskato eta mutikoetan. Emozio hauek ez dute eraldaketa pertsonala eta mobilizazio kolektiboa sustatzen; aitzitik, frustrazioa eta autoestima baxua sortzen dute.
- Taldea osatzen duten pertsona guztien parte hartze ekitatiboa ezinbestekoa da eraikuntza kolektibo bat gauzatzeko. Gure gomendioak honakoak dira: eremu anitzak sortzea, honela, talde handietan hitzegiteko arazoak dituzten pertsonen parte-hartzea sustatzen dugu; entzute aktiborako jarrera mantendu eta hitzaren boterea banatu (ezin dugu ahaztu genero desberdintasun bat ikusiko dugula parte hartzean, landu beharko da).
- Badakigu emakume eta gizonezkoek ez dugula zertan berdinak izan behar eskubide berdinak gozatzeko. Aniztasuna gizartearen aberastasunetako bat da, eta diferentzia ez da ezberdintasunaren zergatia. Hori dela eta, ez dugu beldurrik eduki behar emakumeak izan dugun zaintzen esperientza argitaratzeko, hala ere kontuz ibili behar gara, emakumea ez esentzializatzeke; kulturak ezarritako genero egin-kizuna izan baita desoreka hau sortu duena.

## Aukerako aldaerak.

- Behin dorrea jausten den heinean, berriz eraiki eta hasi daiteke jokoa. Une honetatik aurrera taldeari eskatuko zaio, denbora galera bat suposatu duten eta merkatuaren mesederako egindako eraldaketa sozial desberdinak ikusaraztea. Bigarren momentu batean ikasleriaren ingurunean ematen diren zaintza lanak identifikatu eta ezagutzea eskatu daiteke.
- Une berdintsu batean hainbat talde batera jolasten badaude, Zaintza krisiak dauzkan ondorio globalak ikusarazi daitezke, bai herrialde txirotu eta aberastuetan. Taldeei beste taldeen dorreetako fitxak kentzea ahalbidetuko zaie, emakume inmigranteek zaintza lanak burutzera gure herrialdetara etorri izanaren egoera ikusgai bihurtuz. Era honetan Zaintzen Sarea osatuz eta beraien herrialdeetako zaintza lanak beste emakume batzuek gauzatuz.
- Jolasaren metodología berdina erabili genezake naturaren baliabideen ustiapena, krisi ekologikoa eta azarna ekologikoa lantzerako orduan. Kasu honetan, jarduera dinamizatzen dutenek txartel berriak egin beharko dituzte edota parte hartzaile bakoitzari eskatuko zaio adibide bat non natura, hazkuntza ekonomikoaren onuraren baitan jartzen den.





- Txartelen proposamenak taldean egin daitezke eta ondoren hauekin jolastu. Bakoitzaren esperientzia eta inguruan ikusitako zaintzen arabera landuz.


## Txarteleentzako proposamenak.

1. **Sabelean hazi:** Bizitzan jasotzen dugun lehenengo zaintza lana da, eta hala ere, emakumeek ez dute berme handirik edukitzen. Beste hainbat herrialdeetan, makiletan jarduten duten emakumeek adibidez, haurdunaldiak lanpostuaren galera ekartzen du.
2. **Erditzea:** Jaiotzea, guztiek egin dugun zerbait dela esan genezake. Hala ere, emakumeentzat lehenengo hilkortasun kausa da: egunero 1000 emakume hiltzen haurdunaldi edo erditzea dela eta.
3. **Haurraren lehen egunak...** Jaiotzearen ondoren haurrak zaintza asko behar ditu. Afrikako esaera zahar batek dion bezala “ume bat hezteko, tribu oso bat behar da”, baina gure gizartean familiak geroz eta txikiagoak dira, eta orain arte babesten ziren emakume sareak ahultzen ari dira. Gabezi honen aurrean, talde hezitzaileak sortzen dira, beraien artean amatasun esperientziatik igaro diren emakume taldeak.
4. **Bularra eman:** Osasun Erakunde Mundialak, haurraren lehenengo 6 hilabeteetan bularra ematea gomendatzen du, hala ere estatuan amatasun baimena 4 hilabetetako soilik da. Amaren esnea, behiarena baino kaloria gehiago ditu eta esnearen bidez haurrari amaren antigorputzak igortzen dio; hori dela eta herrialde askotan amaren esnea ematea haurren bizi iraupena bermatzen du.
5. **Hezi:** Haurren lehenengo bi urteak erabakigarriak dira bere hazkuntza fisiko, emozional eta intelektualean, hala ere uste da haur eskolek ez dutela jarduera hezigarri bat burutzen, baizik eta asistentziala. Izan daiteke hori dela eta, haurtxoko desberdinen sare publikorik ez egotea.
6. **Gabetan iratzarritako umeen beharrak asetu:** Umeak hor zaudela jakitearen beharra dauka, maitatuak direnaren beharra, horregatik besotan hartzea negarrez dauden garrantzitsua da, edota iratzartzean beraien ondoan egotea.
7. **Janaria prestatu, haur-oihala aldatu, bainatu...** Asko dira haur baten lehenengo urtetan behar dituen zaintza lanak. Lan hauetarako denbora gabeziak amatasunaren jaitsiera ekarri du: emakumeek 1,38 ume ditu media, ordezko tasaren 2,1ume/emakumeko izanda.
8. **Ama hizkuntza hitz egiten irakatsi:** hizkuntzaren garapena lehenengo hiru urteetan ematen da haurretan, eta zaintza lanak burutzen dutenen arteko harreman sendoa bermatzen du.
9. **Arrisku desberdinetatik babestu:** Haurrak min hartu ez dezaten zaintzetik, gabean estera iritis denaren egiaztatu. Gure inguruan daudenak gure ongizatearen erantzule bihurtzen dira, gehien bat ahulak garen une horietan.



10. **Hurrei eskoletatik batu:** 7 edo 8 orduko eskola jardunaldia eta gero, ume asko estera bakarrik itzultzen dira, gure gizartean aita-amen lanaldia ordu batzuk beranduago bukatzen baita. Haur hauei, “giltzen haurrak” deitzen zaie.
11. **Eskolan lagundu:** Ikasle bakoitzak bere inguruan euskarri ugari behar ditu eskolako etapa guztiak gainditzeko: etxeko-lanekin lagundu, gainditu ez bada atentzioa deitu, musika eskoletan lagundu, irakasleekin bildu... jarduera guzti hauek denbora eta arreta handia behar dute.
12. **Loak hartu baino lehenago ipuina irakurri:** “Bazen behin...” mundu bat non nagusiek hurrei ipuin bat kontatzeko denbora dutela, norberaren autoestimua, erlaxazioa, atseden, kreatibitatea... areagotuz, azken finean zorientasuna eta garapen oso lortuz..
13. **Eskolara eraman:** Ikastola gehienek 9:00 edota 9:30 hasi eskolak, haur asko 7:30tan bertan daude. Zerbitzu hau beharrezkoa da aita-amek beraien ordutegia bete nahi badute. Beraz, ohikoa da haur batek eguneko 10 ordu ikastolan egitea.
14. **Maletak egin:** Gehienek bizitzan behin bidaiatzen dugu: kanpamendu, oporrak, migrazioak. Beharrezkoa da oinarrizkoak diren gauza batzuk biltzea. Maletak egitea planifikazio, organizazio lan handia dakar.
15. **Ikastetxeen Guraso Erakunde desberdinetan parte hartu.**
16. **Parkera eraman.**
17. **Bizikletan, igeri egiten erakutsi.**
18. **Gaixo dauden pertsonei zaindu.**
19. **Mediku, dentista eta okulisten lagundu.**
20. **Ospitalean daudenei lagundu.**
21. **Masaje bat eman.**
22. **Musukatu eta besarkatu.**
23. **Norbanakoaren garbitasuna zaindu.**
24. **Helduak direnei asistentzia eman.**
25. **Bakarrik bizi diren helduak zaindu.**
26. **Familia bisitatu, telefonoz deitu edota lagunekin geratu.**
27. **Entzun eta arreta jarri.**
28. **Sufritzen ari direnei kontsolatu.**
29. **Bakoitzaren alde onak baloratu.**

30. Momentu garrantzitsuak ospatu.
31. Heriotzan lagundu.
32. Komunitatearen hiritartasun bizitzan parte hartu.
33. Etxeko aurrekontua gestionatu.
34. Erosketa egin.
35. Dieta orekatu eta osasuntsua planifikatu.
36. Kozinatu.
37. Sukaldea garbitu eta platerak garbitu.
38. Komuna garbitu.
39. Jantzi.
40. Josi, ehundu, bordatu.
41. Arropa garbitu.
42. Ordenatu eta garbi mantendu espazio komunak.



## Hausnarketarako klabe teorikoak

### Lana: enplegua eta zaintza lanak.

Gazte bati galdetzen diogunean handitan zer izan nahi duen, ziurrenik lanbide bat esango digu: pilotua, ingeniaria, sukaldaria, ile-apaintzailea, abokatua, medikua, erizaina... Beraz ikus dezakegu lanbidea dela bizitzaren jarduera garrantzitsuenetako bat, norbanakoaren zoriona, aintzatespen soziala eta bizi kalitate materiala ziurtatuko duena. Baina, zertaz ari gara lanbideari buruz hitz egitean?

*Lana, ahalegin fisikoa edo intelektuala duen edozein jarduera da, giza-premiak asetzeko behar diren zerbitzu eta ondasunak sortzeko helburuarekin egiten dena.*

Hala ere, lanari buruz ari garenean, enplegua soilik hartzen dugu kontutan; lanbidea edo enplegua merkatuan baliabide ekonomikoen truke egiten den lana da. Izan ere, baten batek umorea erabiliz honela definitzen du enplegua “ordaindua izango ez balitz, egingo ez zenuken hura”.

Baina, gure beharrak asetzeko sortzen ditugun ogasun eta zerbitzu guzti hoiien lana ordaindua izaten al da? Noski ezetz, bere familiarentzat bazkaria egiten duena, bufanda ehuntzen duena, edota seme-alabak garbitzen dituen esfortzu bat egiten ari da, nahiz eta dohainik egin. Gizartearen ongizateari zuzendutako lan asko dago, horien artean, **Zaintza lanak**.


*Zaintza lanak, tradizionalki etxe eremuan egiten diren edo familia harremanei lotuta dauden jarduerak dira, gizartearen bizitzaren sostengurako beharrezkoak direnak.*

Zaintza lanak, hezi, janaria prestatu, arropa garbitu, pertsona gaixoak zaindu, ura lortu, ibiltzen erakutsi, kontsolatu, etxearen aurrekontua kudeatu, ama hizkuntza irakatsi, pertsona zaharrak lagundu, erosketa egin, urteurrenak gogoratu, komuna garbitu, seme-alaben etxeko lanetan lagundu, etb. dira.

Zaintzek denbora eta ahalegin asko eskatzen dituzte, “energia maitekorra” deritzotena behar izaten dute, ohikoa baita maite dugun pertsona zaintzea. Beraz, zaintza lanak ez dira jarduera erraza, eta noizbehinka gogorak bihurtu daitezke, bakardadean eta eginiko jarduera onartu gabe egiten dugunean batez ere.

## Iceberg-aren sistema.

Zaintzak gizartearen funtzionamendurako eta eskubide guztien gozamenarako beharrezko eta oinarritzeko dira. Hauek gabe ezingo genituzke bestelako jarduerak batzuk egin, hala nola, ordaindutako lana, partehartze politikoa, formakutza edo sorkuntza artistikoa. Esan genezake **beste lan eta jarduerak sozialak zaintza lanen gainean finkatzen direla, hau da, hauen oinarria direla**. Eta hala ere ikusezinak dira, eta gizartearen garapenera egiten dioten onura ez dago onartuta... urpean dagoen iceber-aren izotz zati handiena bezela. Iceberg-aren moduan, zaintzei bideratzen diren ordu guztiak, gizartearen lan denboraldiaren %66a da, hau da, 34,74 milioi lanpostu zaintze-lanetara zuzenduta egingo lirateke<sup>1</sup>.



Eta gero esan dezaten, etxeko andreak biztanleria ez aktiboak direla!

Zaintzen ikusezintasunaren arrazoia gure sistema ekonomikoan bilatu behar dugu, hala nola, beharrak asetzeko eta baliabideak banatzeko gizarteak erabiltzen duen antolamenduan, sistema kapitalistan. **Kapitalismoak, merkaturak** ezartzen du bere arreta nagusia, hau baita hain desiratua den **hazkuntza ekonomikoaren** esparrua, aberasketarena. Hazkuntza ekonomikoa beste alde batetik Barne Produktu Gordinarekin (BPG) kalkulatu da, hau da, merkataritza-truke guztien batura, saldu eta erosten den guztiarena: salgaiak, lurra, lana, zerbitzuak, dirua... Hala ere, trukatu den guztiak ez du aberastasuna sortzen: armen merkaturak edota kutsatutako hondartzen garbiketak<sup>2</sup> BPG igotzen dute, baina... aberastasunak al dira? Garapena dela esan al genezake?

**Garapena**, “prozesu ekonomiko, sozial, politiko eta kulturala da. Biztanleria guztiaren ongizatea hobetzerantzko joera jarraitua duena. Garapen prozesuan eta honetatik ondorioztatzen diren onuren bidezko banaketan, pertsona guztien parte-hartze aktiboa, librea eta eraginkorraren bermean oinarritzen da.”

Gainera garapena **iraunkorra** izan behar da, gaur egungo beharrak ase behar ditu, etorkizuneko belaunaldien beharren asetzea arriskuan jarri gabe. Eta posiblea al da merkaturak bere kabuz, pertsona guztien ongizatea eta beharrezko asetzea era iraunkor batean bermatzea?

<sup>1</sup> M<sup>a</sup> A. Durán (2009) “La contabilidad del tiempo” Denboraren erabilerari buruzko Jardunaldi Europearretan. EPA 2011.tik ateratako datuak

<sup>2</sup> BPG.k suntsiketa input erant kontabilitzatzen du, beraz ekonomikoki hondamen ekologikoak jarduerak ekonomikoak sortzen du. Hori dela eta, Prestigiarren ezbeharrak BPGa igo zuen, sortutako lanpostu eta enplegua dela eta.

Kontua da ezetz, askotan asetze eta ongizate hori ez baita errentagarri. Zaintzen arloan, giza garapena posiblea da, baina merkatuan oinarritzen den sisteman horretan dohainik egiten den lana denez, zaintza lanak ikusezin bihurtzen dira.

### ● Emakumeen lanak eta gizonen lanak: genero rolak.

Zaintza lanak, historikoki emakumeek burutu dituzte etxe- eta famili-eremu batean; gizonak bitartean etxetik kanpo jardun izan dute, lan produktibo eta merkantilazatu daitezkeen lanak gauzatu. **Lanaren banaketa sexual** hau, eginkizun desberdinak ezartzen dizkien emakumezko eta gizezkoen (femeninoak edo maskulinoak kontsideratzen baititu), **generoaren** gizarte-eraikuntzaren parte da. Eraikuntza hau emakumeen eta gizonen arteko desberdinatsun sexualetik abiatzen da eta errepresentazio, rol, praktika, sinbolo, arau eta balore sozialen sistema bat sortzen du. Sistem honek definitzen du berez femenino eta maskulinoari dagokiona eta sexu bakopitzak gizartean duen posizioa.

Pertsonen bizi aukerak mugatzeaz gain, genero-aginduen baitan orden sozial bat dago. Honek, hierarkizatuak eta desorekatuak diren botere-harremanak ezartzen ditu non, gizezkoen alde okertzen den balantza, egunerokotasunean ezezik, irudimen kolektiboan ere. **Androzentrismoak** dio, gizezkoen berezko eta bereizgarri diren ezaugarriak izan behar direla gizartea eta bizi esperientzia aztertzeko oinarria, emakumeen berezko ezaugarriak eta historikoki izan duten papera ezkutatu. Eta emakumeen bizi-experintzietako bat, munduko kultura guztietan ematen dena, zaintzak dira. Hori dela eta, zaintza lanak bi arrazoiengatik dira ikusezinak, femeninoak direlako eta merkatutik kanpo geratzen direlako (ez produktiboak dira).

Lana	Enpleguak edo balioideak milioitan		GUZTIRA
	Emakumeak	Gizonak	
Adingabeen zaintza	7,14	1,53	8,67
Pertsona helduen zaintza	2,07	0,52	2,59
Garbiketa	8,63	1,34	9,97
Sukaldaritza	5,74	1,05	6,79
Erosketa eta kudeaketa	4,63	2,09	6,72
<b>Lan ez ordaindua</b>	<b>28,21</b>	<b>6,53</b>	<b>34,74</b>
Ehunekoak	%81	%19	%66
<b>Lan ordaindua</b>	<b>8,00</b>	<b>9,80</b>	<b>17,8</b>
Ehunekoak	%45	%55	%34
<b>GUZTIRA</b>	<b>36,21</b>	<b>16,33</b>	<b>52,54</b>
Ehunekoak	%69	%31	

Emakumeek historikoki jasandako diskriminazio ugari gaituzte eta, lanaldi ordaindura murgilduz, XXan medean langile okupatuen %45a izatera iritsi dira. Beraz, orain arte bizitzaren sostengura bideratutako denbora eta energia, ondasun eta zerbitzuen produktibitate zuzentzen da orain, eta hauek, ez dute ongizate kolektiboan laguntzen proportzio berean. Baina zeinek hartu du bizitzaren sostenguaren ardura emakumeek ez badute hori egiteko denborarik? Ba, ahal duten heinean, beraiek bertan. Eta honek, **lanaldi bikoitza** deritzonaren aurrean jarri ditu, beraien formakuntza, atsedan denborak, aisia, parte-hartze soziala,... alde batera utzi

M<sup>a</sup> A. Durán (2009) "La contabilidad del tiempo" Denboraren erabilerei buruzko Europar Jardunaldiak. EPA 2011.

egiten baitute. Hau da, zaintzen ardura ez dute hartu ez gizonetzkoek (orokorrean) ez gizarte edota enpresak. Ez da zaintza lanen korrespontsabilitatea eman eta honela, lan hauek %80an amak, amamak, izebak, ahizpak, auzotar emakumeren batek, emakume langile atzerritarren batek.. burutzen du, hau da emakumeek.

### Zaintzen krisia.

Zaintza lanak dohainik izateak, ez du esan nahi kosturik ez duela. Lan hauen garapenak denbora, material eta “energia maitekor”asko behar ditu. Izan ere, balio ekonomiko bat jartzen badiogu lan hauei, merkatuko kontuak ez dira zuzenak izango, defizitari-oak izango dira, jarraitzen dugun ekoizpen eredu honetan kostua irabaziak baino askoz ere altuagoa delako. Hortaz, hazkuntza mugagabe hau, zaintzak markatuari eskaintzen dizkion baliabideen kontura gauzatzen da, eta hau, logika sostengaezina da. Horrela, ikusezintasunak, sistema jasaten ari den **Zaintzen-krisia** ere ezkutatu du. Zer gertatuko litzake iceberg-arekin, ur azpian dagoen hizotz guztia urtuko balitz?

Merkatuak, zaintza lanetatik at ikusten du bere burua, **independentea**; langileak “txanpiñoi baten moduan haziko balira egunero” beraien lanpostuetan: heziak, elikatuak, lisatuak, deskantsatuak,...magikoa balitz bezala. Ustezko pertsona independente hauen kontrajarrean, pertsona **dependentek** daude, ezin dutenak lanpostu batera jo eta gainera, besteen zaintzen beharra dutenak. Era honetan dependentsia/independentsia dikotomia sortzen da, emakumeak eta gizonak definitzeko ere erabiltzen dena (hurrenez hurren); baina mito hau faltsua da, bizitza guztian zehar guztiek zaintzen beharra dugulako, guztiek zaintza lanak burutu ditzazkegulako eta beraz, guztiok **interdependiente** garelako.

Krisiak, denbora, espazio eta onarpen gabezia du sorburua eta gure bizi kalitatean eragiten du, bizitzaren eta eskubide guztien gozamenean. Gabezi hau orekatzeko Europan eta Ipamerikan, hurrengo bi estrategiak erabili dira paraleloan:

- **Zaintzen merkantilizazioa.** Hau da, merkatuak, ordainsari ekonomiko baten truke egiten duen zaintza zerbitzuen eskaintza: zahar-etxeak, haurtzaindegiak, aisialdirako parkeak, txakurren egoitzak edo adineko pertsonentzako teleasistentzia zerbitzuak.
- **Emakume atzerritarrak erabiltzea** etxeko lanak burutzeko eta haur, adineko pertsonak edo gaixoak zaintzeko. Emakume hauek, beraien familien zaintzen arduradun nagusienak ere badira, eta askotan beste emakume batzuen gain uzten dute beraien familien zaintzen ardura, **zaintzen kate globala** deritzona sortuz. Zaintza lanak gutxietxiak direnez, emakume atzerritar hauen lan baldintzak penagarriak izan ohi dira.

## **Krisialditik ateratzeko: bizitza erdigunean jarri.**

Zaintzen krisia ez da erabiltzen ari, hauen garrantziaz jabetzeko, balioa handitzeko edo gizartean leku on bat emateko. Aitzitik, aurretiko desoreka eta injustizia egoera ugaltzen eta areagotzen ari da. Zaintza lanak merkatuaren logikan sartzeak, ezberdintasun eta bazterkeria kutsu bat ere badu, baliabide ekonomikoak dituztenak soilik ordaindu dezaketelako.

InteRedetik, pertsona guztiak **zainduak izateko, besteak zaintzeko eta gure burua zaintzeko** dugun eskubidea defendatzen dugu. Gainera, pertsona eta instituzio sozialen **korresponsabilitatea** aldarrikatzen dugu: enpresa, estatua, erakundeak, elizak, etab. Eta zaintzen zamak birbanatzen hasteko, beharrezkotzat jotzen dugu gizarteak emakumeekiko duten **Zaintzen Zorra** onartu eta aitortzea.

*Zaintzen zorra, pertsonen beharrak asetzeko eta besteen bizi kalitatea bermatzeko erabiltzen den energia, maitasuna eta denboraren arteko harremana da.*

Gizonezkoen zaintza zorra aztertuko bagenu, negatiboa izango litzake gehiengoentzat, eratzen dutena baino zaintza-energia gehiago kontsumitzen baitute. Gehiago emakumezkoentzat berriz, emaitza positiboa izango litzake; eta hau, beraien ongizate eta osasunarentzat arrisku bat da, baita beraien garapen pertsonal eta partehartze herritarrerako oztopo bat ere.

Beste alde batetik, ongizate kolektiboa, garapena eta sistemaren sostengua bermatzeko, ezinbestekoa da hazkunde etengabearen helburua berraztertzea eta kolokan jartzea, azkean batean planeta finitu batean bizi gara, non denborak eta energiak limitatuak diren, eta ezinezkoa den betiko haztea. Aldaketa **Deshazkudetik** etorri daiteke.

Deshazkundera ez da kontzeptu negatiboa, natura eta gizakia eta azken hauen arteko harremana orekatzearen aldeko apustu positiboa egiten baitu. Helburua, hobeto **bitzitzeko gutxiagorekin bizitzea** da, hau da ekitatea bilatu zentzuzko doitasun batean.

Baina ez pentsa modu pareko batean deshazi behar garenik gauza guztietan, gure bizi-erritmoak duen abiadura, bidaiatutako distantzietan, produktuen garraioaren distantzietan, ongizate kolektiborako izango ez diren lanaldi luzeetan, gure kontsumo mailean,...deshazi beharko genuke; honela, parte-hartze sozialerako denbora eta energian, sorkuntzan, solidaritatean, entzutean, hezkuntzan, pertsonen arretan,...haziko ginateke. Azken finean, "Zaintzen bidez hazi" ahal izateko.